

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Udal Euskaltegia (Basauri)**

Iraupen luze aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdiaren oinarriak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritakoa eta Irakasle kategoriari dagokiona.

**IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRIAK, 20/2021 LEGEAREN 6. eta 8.
XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOIA ETA IRAKASLE KATEGORIARI
DAGOKIONA**

1. – Deitutako lanpostuak.

Lau irakasle lanposturako plazetarako deialdia egiten da, txanda irekiz, honako zehaztasunak dituztenak:

Lanpostu kopurua	Lanpostua	Kategoria	EUFALDEBA maila	H.S.	Hizkuntz eskakizuna	Derrig. D.
4	Irakaslea	A2 erdi mailako teknikaria	13	D.A.	4-T.G.	-

2– Parte hartzeko baldintzak.

2.1– Lanpostuak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrenekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2– Irakasle lanposturako hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasaren zenbatekoa honako hau da: 18 €

2.3– Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, unibertsitate graduako titulazioa (MECES 2. Maila) eskatzen da.

3. – Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

Deialdi honen xede diren lanpostuetan, 4. hizkuntza-eskakizuna bete beharko da. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun hori oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatuko beharko da.

4. – Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1 Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiak eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzailerik izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien % 25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.2. Bigarren zatia: euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailerik, 4. hizkuntza-eskakizuna duten eta nahitaezko izaera duten lanpostuak dituzten hautagaientzat.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatuko beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Udal Euskaltegiari erregistro horretan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).



4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzeik salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat. Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa.

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, irakasle emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.

I. ERANSKINA.**MEREZIMENDUEN BAREMOAK**

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu.

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana. Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, irakasle kategorian, , lan egindako egun bakoitzeko 0,0274 puntu.

a.2. Esperientzia espezifiko:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan irakasle kategorian, egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0,00913 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partziallean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.



b) Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finkoko izaera lortzeko prozeduretan. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.1.- Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza (Herri Administrazio Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkarreetan, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 0,50 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero.

**GOIZANE
ZABALA
ARRIZABALAGA -
78869543J**

Firmado digitalmente por
GOIZANE ZABALA
ARRIZABALAGA -
78869543J
Fecha: 2022.12.05
14:11:26 +01'00'

**MARIA ELISA
ARROYO OLAIZOLA
- 11911505N**

Firmado digitalmente por
MARIA ELISA ARROYO
OLAIZOLA - 11911505N
Fecha: 2022.12.15 22:21:58
+01'00'